

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kanpezuko etxebizitza komunitarioa kudeatzeko kontratuaren lizitazioa eta agirien onarpena

Udalbatzak, 2016ko azaroaren 8ko ohiko osoko bilkuran, Kanpezuko etxebizitza komunitarioa kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko administrazio klausula berezien eta betekizun teknikoen agiriak onartu zituen. Horiek horrela, agiri horiek zortzi egunez jarriko dira jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertuak izan daitezzen eta, egoki iritziz gero, alegazioak aurkeztu daitezzen. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin betiko onartutzat joko lirateke.

Halaber, kontratua esleitzeko lizitazioa iragartzen da. Dena dela, administrazio klausulen agiriaren aurka erreklamaziorik aurkezten bada, atzeratu egingo da.

1. Erakunde esleitzaila: Kanpezuko Udala

2. Kontratuaren xedea:

Azalpena: Kanpezuko adinekoentzako etxebizitza komunitarioa kudeatzea, emakida bidez.

Gauzatzeko lekua: Santikurutze Kanpezu.

Epea: bi urte, 2017ko urtarrilaren 1etik edo, geroagokoa bada, kontratua esleitu izanaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengo egun baliadunetik, 2018ko abenduaren 31 arte, egun biak barne; beste bi urtez luza daiteke, gehienez.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

Izapidetzea: arrunta.

Prozedura: irekia.

4. Lizitazio oinarria:

Kostu/plaza/egun hirukote horren arabera, gutxiago eskatuz hobetu ahal izango dute lizitatzailaiek; egoitzako arreta zerbitzua: 46,49 euro/plaza/egun; eguneko arretarako zerbitzua: 18,60 euro/plaza/egun; biak ala biak barne diren kontzeptu guztiengatik. Prezio hori betetako plazengatik izango da, hutsik dauden plazengatik 41,84 euro/plaza/egun eta 16,74 euro/plaza/egun izango da, hurrenez hurren, biak ala biak ere barne diren kontzeptu guztiengatik. Hori guztia Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin 2016ko ekitaldirako izenpetutako hitzarmenarekin bat etorriz.

5. Bermeak

Behin-behinekora: aurkeztutako eskaintzaren ehuneko 3.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a. Erakundea: Kanpezuko Udala.

b. Helbidea: Samuel Picaza plaza, 1.

c. Herria eta posta kodea: 01110 Santikurutze Kanpezu.

d. Telefonoa: 945 40 54 43. Faxa: 945 40 54 44

e. Posta elektronikoa: campezo@campezo.eus

f. Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: Agiriak 9:00etatik 14:00etara azter daitezke, astelehenetik ostiralera, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren bezpera arte

7. Eskaintzak aurkeztea

Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.

Aurkezteko lekua:

Erakundea: Kanpezuko Udala.

Helbidea: Samuel Picaza plaza, 1.

Herria eta posta kodea: 01110 Santikurutze Kanpezu.

Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: esleitu arte.

8. Kontratataren berriazko betekizunak: ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun tekniko-profesionala, administrazio klausula berezien agirian jasotzen den eran.

9. Eskaintzak irekitzea: Kanpezuko Udalaren bulegoetan, goizeko 09:00etan, proposamenak aurkezteko azken egunaren hurrengo ostegun baliodunean; proposamena postaz bidaltzen bada, Administrazio publikoko kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa hartuko da kontuan.

10. Bestelako argibideak: ikus administrazio klausulen agirian eta Kanpezuko udaletxean.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko azaroaren 7a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO